



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
📠 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

2014KO MARTXOAREN 14KO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.
Batzarra: Ohiko bilera.
Deialdia: Lehenengoa.
Eguna: 2014.03.14.
Ordua: Arratsaldeko 19:00etan.
Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Jaime Iturria Mitxelena jn.
Zinegotziak:
Koldobike Gorostiza Uriguen and.
Ander Almandotz Indakoetxea jn.
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.
Mikel Leiza Etxeberria jn.
Teodoro Pikabea Zubieta jn.

Bertaratu ez direnak:

Jose Ignacio Madariaga Vergara jn.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Azkeneko aktaren onespena.
- 2.-Pedro M^a Larrechea Ordoqui jn: oihan probetxamendu eskaerak.
- 3.-Jose Manuel Oscoz Iturria jn.:oihan probetxamendu eskaera.
- 4.-Candido Apezetxea Lucambio jn.: oihan probetxamendu eskaera.
- 5.-Katastroko aldaketaren onespena.
- 6.-Arantzako Guraso Elkarte: diru laguntza eskaera.
- 7.-“Euskaraz bizirik, Nafarroako Gobernuaren erasoan gainetik” proposamenaren onespena.
- 8.-2014ko aurrekontua eta plantilla organikoa: hasierako onespena.
- 9.-Alkatearen ebazpenak.
- 10.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.

2014ko otsailaren 7an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

2.-PEDRO M^a LARRECHEA ORDOQUI JN: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERAK.

Pedro M. Larrechea Ordoqui jaunak Zozaineko Borda alderdian arkazien probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (matarrasa, 5. poligonoko 566. lur zatian) eta Arbiaga alderdian gaztainen probetxamendua egiteko eskaera (entresaka, 5. poligonoko 677. lur zatian).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Pedro M. Larrechea Ordoqui jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerei aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Departamentura bidaltzea .

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

3.-JOSE MANUEL OSCOZ ITURRIA JN.:OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.

Jose Manuel Oscoz Iturria jaunak Ibina alderdian pinuen probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (matarrasa, 1. poligonoko 83. lur zatian).

Kontuan izanik katastroan aipatutako lur zatia Silvia Llordes Alonso andrearen izenean dagoela.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Jose Manuel Oscoz Iturria jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

4) Akordio hau Silvia Llordes Alonso andreari jakinaraztea, lur zatiaren titularra bezala.

4.-CANDIDO APEZETXEA LUCAMBIO JN.: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.

Candido Apezetxea Lucambio jaunak Martinborda alderdian 12 haritz amerikanoen probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (matarrasa, 1. poligonoko 179. lur zatian).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Candido Apezetxea Lucambio jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
📠 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

5.-KATASTROKO ALDAKETAREN ONESPENA.

Ikusirik Nafarroako Lur Zerbitzuak prestatutako txostena Arantzako Udalak eta Jose Luis Goizueta Goñi jaunaren artean sinatutako irazlaien hitzarmena eta trukaketa 4. poligonoko 173. lur zatia aldatuz katastroko planoetan.

Kontuan hartuz aldaketak ere mugante diren M. Pilar Alzuri Maiz andrea (4. poligonoko 172. lur zatia) eta Juan Jose Vergara Larrechea jaunaren (4. poligonoko 216. lur zatia) lur zatiak ukitzen dituela eta euren adostasuna agertu dutela.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Katastroko planoak aldatzea aipatutako txostenaren arabera.

6.-ARANTZAKO GURASO ELKARTEA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik Arantzako Guraso Elkarteak aurkeztutako idatzia, Olentzero eta Kabalgata antolatzekeo gastuak ordaintzeko diru laguntza eskatuz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Guraso elkarteari egindako oinarrizko gastuen zerrenda aurkeztea eskatzea diru laguntza ematea edo ez ikusteko.

7.-“EUSKARAZ BIZIRIK, NAFARROAKO GOBERNUAREN ERASOEN GAINETIK” PROPOSAMENAREN ONESPENA.

Ikusirik euskarari buruz hartutako proposamenaren edukia:

“Euskaraz biziz, Nafarroako Gobernuaren erasoei aurre egin diezaiegun

Euskaraz bizi nahi dugunok hemen, Nafarroan, gero eta oztopo gehiago dugu Nafarroako Gobernuaren aldetik. Euskaraz ari garenok arrotz gisa tratatzen gaitu Gobernuak, eta desagerrarazi nahi gaitu, gure lurretik bota. Ahaztu dute, nonbait, euskara dela “Lingua Navarrorun”.

Nafarroako Gobernuak euskarari dion amorrua argi ikusten da honetan eta hartan, behin eta berriz, hartzen dituen erabakietan, egiten dituen adierazpenetan bere hizkuntza politikan. Adibide gisa, hor dugu bidegabekeria zerrenda luzea: euskarazko irakaskuntza zabaltzearen kontra Euskararen Legeak ezartzen duen zonifikazioa erabiltzea, D eredia kakazteko ahaleginak (Guardia Zibilaren sasitxostena), elkarbizitzaren aitzakian D ereduko ikastetxean funtzionamendu erdaldundu nahia, Nafarroan ETB sare digitalean ikusteko debekua eta isunak (haurrak euskarazko marrazki bizidunak gabe erdaraz biziartzeko), Euskalerrria Irratiari lizentziarik ez emateko trikimailu lotsagarriak, herrietako euskarazko komunikabideak diru laguntzik gabe uztea, udalerrietako euskara zerbitzuak bezala, euskal eremuko udalerrietan hainbat zerbitzu euskaraz jasotzea galaraztea (liburutegietan, osasun-etxeetan euskaraz ez dakiten langileak jarrita), herriak sortutako euskaltegiak itotzea diru laguntzarik gabe utziz.

Indarrean dagoen Euskararen Legea eskasak ezartzen duena bera ere ez du betetzen hainbat arlotan, eta lege horren hainbat atal murriztu egin ditu, egin daitekeen garapenik kaltegarriena eginda.

Honen guztiaren aurrean, Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika itxuragabe hau tinko eta ozen salatzen dugu; euskaldunok hemen gaudela erakutsi nahi dugu, eta eraso zerrenda amaigabeari bukaera emateko eskatzen diogu Gobernuari. Halaber, euskararen aldeko benetako hizkuntza politika eranginkorra aldarrikatzen dugu. Horrelako hizkuntza politika zuzen batek ekarriko baitu hizkuntza normalizazioa eta horrek bermatuko du

euskaldunon euskaraz bizitzeko nahia. Nafarroa luze-zabal guztian euskaraz bizitzeko gero eta indartsuagoa den nahi hau.

Azkenik, dei egin nahi dizuegu zuetako bakoitzari eta euskal komunitate osoari dinamika sozial indartsua abian jartzera, euskaraz bizitzeko behar diren pausoak emanez. Pertsonak gara aldaketaren gakoa: euskara erabiliz bizitzaren arlo guztietan, espazioak euskaldunduz, euskara ikasiz, euskaldun bezala harro agertuz. Nonahi eta noiznahi, euskaraz”.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Aipatutako adierazpena onartzea.

8.-2014KO AURREKONTUA ETA PLANTILLA ORGANIKOA: HASIERAKO ONESPENA.

Gai hau mahai gainean utzi da hobeto aztertzeko.

9.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du (2014ko 11.etik 18. arteko ebazpena).

10.-ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.

Bertzerik gabe, gaueko 21:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,
Jaime Iturria Mitxelena jn.

